

OROITZA

GREGORIO MUJIKA

Mujika il dala, gure irakurleak badakite. Euskalefiko egunerokoak oritalde mingaríyak egotzi dizkiyote. Biyotzeko emaitz abetan, ez genuke motx gelditu nai. Gure REVISTA-k oroitza zor diyo. Ofelako zorari erantzuteko, il-befi ondorengo loretxo batzuek, otoitzekin naste, obi-ári gañean ipiñi nai genituzke.

Samiñaldi latzenak biyotza mindu-áren, ez du aboak mintzulik gelditu bear, zuzenbidezko zora ordañáren eske datorkigunean.

Ofelako edo alako armiña dala-ta, askok idatzi oi dute: miñak ez dakarkigu zer esan: gogo guziya toil, mintzorik ezin asma: goraldirik ezin sor. Ez goraldirik, ez ixilpean zezel. Dana dala, uraxe esan.

Euskal-idazle bikaña zala, jakiñen gañeko gauza da. Idazle langile purukatua beti azaldu zitzaigula, au ere edozeñek daki.

Begira, begira atzera. Oraintxe ogeita bost urte, urí zebiltzen bai euskera, bai euskaltzaleak. Euskera lurpean bezela bizi zan. Euskaltzaleak, noizean beingo txori txepetxak bezela: txio jo ta burua makur.

Orduko idazleen izenak ez lirake beñere izungi bear, iñork baño geyagoko bizmena euskerari eman baiziyoten. Oraingo antzarak osiñean plista-plista dabiltz, berak nai lezateken igari lasayez: orduko kalatxoriyak, bitsa-bitsa iraultzen zan itxaso-gañean zebiltzen. Mujikaren euskal-idazle lanak ordukotxeak dira. Bide zuzenez sari-eske datozkigu. Guk ezin uka.

Emen bertan, REVISTA ontan, idazle bikain oren aztarénak baditugu: *Euskaldun gaztediari*.— *Txoroa*.— *Euskeraren alde*.— *Gure gauzak: Bertsolariak*.— *Elizanburu*...

REVISTA onen lanetan asi giñan lenbiziko urteetako lanak dira, euskeraz egiñak, berak ain pizkor usai gozoz uyaltzen zituen lanak.

Urte askotxo joan dira ordu ezkeroztik: bide samiñetan, bitarte

ortan, urazki ibili gera. Samiñena orain: Gregorio maitearen lanik etzaigula geyago elduko.

Euskerak bere zugatz edera badu. Inguru zaizkiyon beste izkuntzak zugatza ezik, igali mardo galantak ageri dituzte. Ez ote da euskera besteak bezin bizikor? Ez du Atenasko oyalik soñean eraman; ez du Lazioko pitxirik arapaska atxi: ez du besteren mexan-



zapi-goririk edo ozkirik jantzi: ez da besteren zugatzetara urbil, madari ustelingatxoak eskuratzeko. Ber-bera danez: garbi, arats, eder ta lerden azaldu zaigu; eta iñoren alorik ikutu gabe, zugatz edera eraiki du, seme goseti utsak geranok piko ta pikoak magalean jaso ditzagun.

Batzuentzat, piko ta makila. Beste batzuentzat, piko ta alako

adartxo me-metxua, piko artean lore ta loreak etenik gabe dariyona. Seme kutunentzat abek. Euskeraren semerik kutun-kutunena, Gregorio.

Azkaña zan. Euskerak bear zuen gazte ernaya, lenbizi: gero, euskaltzale kementsua, ta kemenak geyen-geyen ekin bear zuten garai-garayean, eriyotzak ebaki zizkigun aréngandik zetozkigun uste maitetsu guzik.

Euskaltzale-piñan izendatzen geranok izaña bezela geneukan. Egun argiak lenbiziko txinta bear du. Euskera gora ta gora dabilēla-ta, egunik argitsu ta edefenak eldu ledizkiguke. Alakorik gertatuko balitz, jakiñ bezate euskal-alorētan dabilizan atxurlariyak, zeñi zor diyoten lenbiziko txinta.

Mayatza beti loretsu. Etzitzayon euskerari urte ta urtetan mayatzik etofi: lore ordez, sasiyak; zelai-landaretsuen ordez, zotal irotuak.

Eskeñak Mujikari, lore ekartzalē izan zalako. Baratzean atxurki lan eginik, euskeraren luñak astindu zituen, ta ez da geroztik mintzolorategiyan, lore-txortaren utsik izan.

Maitegai edefenak bere baitan: Jaungoiko maitale, emazte-auñen maitale, euskera maitale...

Ormaiztegin jayo zan, 1882garēn urteko Lotazilaren 24^{an}. Dostin il zan, Uztaren 23garēn egunean, 1931.

Gure otoitz eta oroitzik etzayo peituko.